

gaurko pertsonaia

MIKEL KORTA

Amnistiaren Aldeko
Batzordeetako kidea



«Euskaldunok aterbe eskubidea behar dugu»

■ **NBEko Giza Eskubideen Batzordeko ordezkari bereziak aintzat hartu ditu 15 euskal herritarrek salatutako tortura kasuak. Zein da zure azterketa horri buruz?**

Betidunik salatu duguna berretsi besterik ez du egin NBEko ordezkari bereziak, hau da, tortura sarritan aplikatzen dela euskal herritarren aurka. Nahiz eta Nazio Batuetako ordezkariaren txostenean hamabost pertsona soilik azaldu, horren azalpena oso erraza da, hau da, tortura kasuak demostratzea oso zaila dela.

■ **Salaketa garrantzitsua al da?**

NBEko Giza Eskubideen Batzordea erakunde garrantzitsua eta nahiko izen onakoa dela kontuan badugu, salaketak pisu berezia duela pentsa dezakegu. Gure betiko salaketak nazioartean eztabaidatzeak zeresan handia du guretzat, salaketei legitimitate berezia ematen dielako.

■ **Azken egunotan atxiloketa ugari izan da. Zein da detentzio horiek ulertereko klabea?**

PSOEren eta PPren arteko lehia eta bipolarizazioa espero zitekeen hauteskunde kanpainaren hasieran, baina horren orde, Euskal Herriaren eta Espainiaren artekoa gertatu dela iruditzen zait. PSOE eta PP alderdiek errepresioa hartu dute euren ikur modura kanpainan zehar, eta azken atxiloketak testuinguru horretan kokatu behar dira.

■ **Mikel Zubimendiren kasuaz zerba it esatekorik baduzu?**

Gertakizun horrek garbi azaltzen du euskaldunok aterbe eskubidea behar dugula, Euskal Herrian arrazoi politikoengatik jende asko eta asko kartzelaratzten baita. Mikel Zubimendiren kasu horren isla besterik ez da. X

Independentzia lortu arte

Hauteskunde garaia iritsi zaigula eta, oraingo honetan ere, zenbait erakarketa helarazi nahi dizuet.

Noizbait hauteskundeak garrantzitsuak izan badira gure herriarentzat, orain direla esango nizuke; gure herriak egoera berberan jarraitzen du aspaldian, gauza askotan okerrera jo duelarik. Horregatik, oraindik gure arazoak konpontzeko ditugu.

Francoren garaian legez, Euskal Herriak ez du inongo askatasunik, ezta demokraziarik ere. Ikus dezagun bestela!

Frantzia eta Espainiako gobernuak, aho beteaz, zenbait nazioren independentziaren eskubidea onartzen eta aldarrikatzen duten bitartean, eta haien negoziaketan alde agertu, Euskal Herriari eskubide arruntena ere uko egiten diote.

Ulertu al daiteke jasaten ari garen egoera larri hau —600 preso, 2.000 errefuxiatu eta erbesteratu, langabezia, guda zikina, mota guztietako zapalkuntza eta abar—, demokrazia baten barruan?

Bada, jakin dezatela guztiak, bai frantses bai espainol gobernuak, baita gure sasi-politikari horiek ere —gure herria saltzen ari diren horiek—, herri honekin ezingo dutela. Gurea delako..., maite dugulako..., eta noski, orain arte bezala borrokan tinko jarraitzeko asmoa dugulako.

Garbi izan behar dugu borrokarik gabe ez dugula ezer lortuko; nahiz eskubideak izan, ez dugutela fitxik ere dohainik emango... Hor-taz! Aurrera lagunak! Jo ta ke Independentzia lortu arte!

Eta besterik gabe, nire besarkada beroena barruan dauden lagunei —oraingo honetan, bereziki, Jon Idigorasi: animo, txo!—, Herri Batasuneko kideei, eta baita kanpoan, egunero-egunero, gure herriaren askatasun osoaren alde borroka bizian ari zareten guztioi ere. Gora Euskal Herria askatuta!

• Anjel Alkalde

(Euskal errefuxiatu politikoa)

Hogei urte igaro eta gero hau!

Entzun izan dut nonbait, «denbora sentimendurik sakonenak ere ahazteko ahalmenean dituela»; eta badirudi esaerak baduela izaterik, beti osoki betetzen ez bada ere. Bada, 1976ko martxoaren 3 hura, euskaldun askok gogoratu eta beste askori gogorarazi arren, jadanik historian galtzen den egite hutsa besterik ez da, tamalez.

Hala eta guztiz, eta labur-labur, orainak iraganean euskarririk duelakoan, joan-etorri txiki bat egin nahi dut, gertaera haien ingurutik gaurdaino.

Jeneral ahalgutiduna hil eta lasterrera, aurreko esperientzia ilun eta ameskaiztoaren amaieran jasandako errepresioa gogoan izango du Euskal Herriak (Gasteizko sarraskia lekuko). Halere, teoriarik garai berri baten sartzen ginela eta, *Hausturarako Plataforma Demokratikoa* deituriko egiturak (asmoak?) ez zuen urrats handirik eman, bere idearioan puntu garrantzitsuak gordetzen zituen arren (besteak beste Herrien autodeterminatzeko eskubidea). Baina lehenengo hautestontziak ikusi genituenerako, bertan behera geratu ziren ilusio eta esperantza guztiak. *Demokrazia eta Demokratek* irabazi zuten gure *Herri libre eta subirano* izateko desioak *Konstituzio* arrotz eta menperatzaile baten iltzatuta geratu zirelarik.

Harrezkero, Hego Euskal Herriaren hausturatik aparte, gure Herriak jasan duen deskulturizazioa, ekonomiarik suntsiketa eta herri-kontzientziazioa eza maila larrietara iritsi da, konponenda posibilista (autonomia) eta gizarte insolidario baten trukean.

Eta esandakoa gutxi balitz bezala, horra hogei urte geroago (1996ko martxoaren 3an datorkigun mezua: *zatozte gehiengoarekin!* edo *erailki dezagun Espainia positiboki!* lotsa barik!

Gasteizko gatazka hartan hil zirenek ez dakit nola erreazionatuko luketen egungo mezu hau ikusita, baina nik neuk behintzat, ez dut zuen proiektu espainolean parte hartuko.

Izan ere, enbor bereko betiko zapaltzaileen gandik, zer espero liteke?

• Joxe Ramon Arbe

GASTEIZ

Getxoko geltokia mantendu

Getxoko auzokoa nauzue, eta otsailaren 23an Getxoko udalerri txean Getxoko herriari kendutako geltokiaren berreraikitzea erabakitzeke bozketa egin zela entzun nuen. Geltoki honek 100 urte baino gehiagoko historia dauka, baina hala ere aho bete hartz gintuen —bai erabiltzaile asko bai neu— EAJk gure geltokiaren kontrako botoa ematen zuela ikusteak.

Hauek honela, ez dugu ulertzen zelan alderdi politiko batek gure herriaren kontrako erabaki bat har dezakeen —alderdi horretatik barruan Getxoko alkatea dagoelarik—. Hau ezin azal liteke, bi arrazoi hauengatik ez bada.

1. Euren botere osoa edukita —botere osoa dauden egungo politikoei pentsatzen duten legez— ohizkoa den burugogorkeria dela eta Aldez aurretik herriari geltokia berreraikitzearen kontrako botoa emanda, nola aitortuko dute hori guztia hankasartze bat izan dela?

2. Egon daitezkeen ezkutuko interesak dela eta. Behin eta berriro aipatzen dugute Iberberangoko geltokiaren kontua, etorkizuneko geltoki bat egiteko balizko kokaguna bezala. Aldez aurretik inguruko lurretan —egun soroak direnak— eraikiko dela jakinik ez ote dute EAJko interesatu batzuek proiektu honekin etekinik ateratzeko asmorik izango?

Beraz ez dago argudio tekniko edo soziologikoz trena Getxoko geltokian ez gelditzea, eta inguruan ditugun 15.000 erabiltzaile ikastetxe 2, institutu 2, ikastola 1, 6 zabalgoitza egotea, horren froga argia dugu.

• J.G.L. Egurola

GETXO (BIZKAIA)

Joxerra Garzia



Hausterretik hausnarrera

Salbuespen-egoera gaurkoa. Pentsa: pentsatu beste ezer egin gabe eguna pasatzea derrigorturik. Hala nahi dute politikariek. Hala agintzen omen du legeak. Pentsatu, besterik ez. Hausnar eguna dugu gaur. Pentsa dezagun, beraz.

Pentsa dezagun lehenik zer dela eta nahi duten gaurko eguna hausnarrean pasa dezagun. Edota, gauza bera baita, zergatik nahi duten lau urtez behin bakarrik pentsatzea. Urteak dituen gainerako 364 (edo 365) egunean ez-pentsareri nahi gaituzte, otzan eta esaneko, beren leloen jarraitzaileak. Baina gaur ez. Gaur pentsatzea tokatzen omen da. Pentsu-eguna, hausnar egiteko eguna omen.

Hausnartzea, berez, ganaduari dagokion ekintza da. Aurrez, arrapalada batean iren-

tsi duen belarra berriro ahora ekarri eta patxada ederrean maska-maska egitea, hori da hausnartzea jatorriz. Guri dagokigunean, kanpainian zehar irentsi arazi diguten guztia xehetzea izango da orduan. Badugu, bai, zer eho eta zer xehetua ugari. Izan ere, ahotik ez beste zulo ia guztietatik sartu baitigute jatena, eta behar bezala hausnarraren egin ezean sekulako tripako minak sortuko zaizkigu gero.

Ohi bezala, begietatik sartu digute gehiena, prentsa bidez eta bideoz. Ikusi beharreko guztia ez dugu ikusterik izan, baina jakina denez, irudimenak irudiak baino askoz indar handiagoa du, eta ikusi ez dugun horrek izan du, azken batean, protagonistorik nabarmenena. Belarri-zuloetatik ere sartu digute jakia galanki. Hitzak, hitz bi-ziak, ahozkoak, badu hitz idatziak, hitz hilak inoiz izango ez duen gaitasuna, esana bezain esanguratsua baita esateko modua. Aipatzea komeni ez den beste zulo batzuetatik ere ahalegin du zaizkigu sartu beharrekoa sartzen, baina kontu ilun-zikinak argi eta garbi azaldu behar dira azaltzekotan. Bestela hobe da ahoa ixtea. Ahoa ere bai, alegia.

Aziendarekin ezezik, ihauteriek ere badu honek guztiak antza. Ihauterietan bezala, egunerokotasunaren gristasuna alboratu utzirik, mozorroturik ibili zaizkigu politikariak hauteskunde-kanpainian, nor bere bezeroen ustezko gustuen arabera. Basajaunaren mozorroa aukeratu duenik ere izan da bakarren bat, baina gehienak Walt

Disneyren estetika bigun eta (Patzikuk mailegua barkatuko ahal dit) mengela aintzat harturik. Horren adierazle garbia, alderdiek beren hautes-kantuetarako erabili dituzten musikak ditugu. Kantuen hitzena begi-bistakoezia da, baina musikenari larria deritzot. Ez naiz ni musikan aditua, baina ez didazue ukatuko, denek bat ez diruditenik. Niri, behintzat, Mucedadesenak iruditzen zaizkit denak, edo El Consorciorenak, edo edozein *revival*-talde mixerablenak, edo Sergio eta Estibaliz (eztiago balitz, akabo, bertan urtuko liraterke) bizkotxotearenak. Denak dira Borgesen zentzuan barrokoak, bigun, hiper-baikorrak, euforia-sortzaileak, zuriak, onirikoak, onanistak. Eta, kristo, ongi da horrelakoak izatea eskuinak (barka, eskuinik ez omen dago-eta, ez hemen eta ez han: zentroak) aukeratutakoak. Baina diskurtso ezkerari eta alternatiboek bestelako moldeak behar lituzkete. Esan bezala, esaten dena bezain esanguratsua baita esateko modua. Mezu horiek ez dira musika horretan sinesgarri.

Baina tira, ihauterietan hausterreguna bezala, hauteskunde-kanpainia orori bere hausnarreguna darraio ezinbestean. Gaur pentsatzea dagokigu, eta ez besterik ezer. Ez dut, beraz, hauteskunde berruz ezeren deusik esango. Hori bai, bil ezazue kemena non edo han, jakina baita ihauteri-kanpainiaren eta hauster-hausnarregunaren ostean zer datorren: garizuma, zazpi zangodun astoa. Gaurko betekadaren ondoren, pentsamentuaren baraualdi luzea.